


BALEIKE

228. ZENBAKIA. EURO BAT
2014ko URTARRILA

www.baleika.com



Joanito Dorronsorok Amets
Arzallusi Bertsolari Txapelketa
Nagusiko txapela jantzi eta
astebetera bildu ditugu,
Joanitoren etxean. Pianoa jotzen
bukatu dute.

TXAPELAREN BUELTAN

ERREPORTAJEA: GERRA ONDORENGO ZUMAIAKO ANTZERKIA



Kalitatezko
produktuak

Gipuzkoako
Okelaren
Ziurtagiria:
GI-OKELA

ZUMAIA
Basadi auzategia, 4.
Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ
Salegi kalea, 14.
Tel./Faxa: 943 890 215

Juanjo Larrañaga harategia



LEIALTASUN TXARTELA 2014

	HILABETEA	SARIA	AZALPENA
OTSAILA	1-29	SASOIAN JARTZEKO	10€-ko erosketatik txartelak hauetan erabiltzeko: botikak, parafarmaziak, edergintza zentroak, belar dendak, fisioterapia zentroak, optikak, ile-apaindegiak eta talasoterapietan...
MARTXOA	1-29	PINTXOZ PINTXO	KONTSUMIZIOA TABERNETAN. Balioa 3€.
APIRILA	1-30	UDABERRIA ZUMAIAN	5, 10, 20 eta 50 €-KO EROSKETA TXARTELA.
MAIATZA	1-31	UDABERRIA ZUMAIAN	5, 10, 20 eta 50 €-KO EROSKETA TXARTELA.
EKAINA	1-30	MERKATARITZAREN ASTEA	% 5EKO DESKONTU FINKOIA EKAINEKO LARUNBAT BATEAN
UZTAILA	1-30	UDARA HEMEN DA	2 LAGUNENTZAKO BAZKARI/AFARIA. BALIOA 60 €
ABUZTUA	15-31	ESKOLARA ITZULTZEA	ESKOLARA ITZULTZEA, 5, 10, 20 eta 50 €-KO EROSKETA TXARTELA
IRAILA	1-30	ESKOLARA ITZULTZEA	ESKOLARA ITZULTZEA, 5, 10, 20 eta 50 €-KO EROSKETA TXARTELA
URRIA	1-15	ESKOLARA ITZULTZEA	ESKOLARA ITZULTZEA, 5, 10, 20 eta 50 €-KO EROSKETA TXARTELA
AZAROA	15-30	BEZEROAREN HILABETEAREN	%5EKO DESKONTUA EZUSTEAN
ABENDUA	1-15	GABONAK	5, 10, 20, eta 50 €-KO EROSKETA TXARTELA

BALEIKE 228

AZALA A. Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustín Zubimendi eta

Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietza, Izaskun Urbietza eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

Bota bertso bat

I. saria

Egilea: **Amorantiak**

Doinua: *habanera*

Goizean goiz esnatzean
maite dut zu usaitzea
ezin saihestu dezaket
lehen aldia oroitzea
ordutikan lortu duzu
beti ni kitzikatzea
ez zintuzket aldatuko
behar zaitut dastatzea
maiz mingotsa zaren arren
erraz da zu gozatzea
zuganako maitasuna
ez dut nahi inoiz galtzea
beste askoren eskutan
ikusi arren maitea
zu besterik ez zaitut behar
bazkalosteko kafea.

Txiotu kopla bat

I. saria

Egilea: **Pello Etxaniz**

Itzurun ta Santixo
maite dut Zumaia
oraindik maiteago
Talaiepeko mahaia.

Aipamenak

Egilea: **Iñaki**

Doinua: *ETA ren su etenetik*

Disneyko mila histori
txoroek ze enbarazu
naranja erdian mitoak
ere hor darrai jo ta su
gizartearen esanei
ez zaiezu egin kasu
“bere gabe ez naiz ezer”
gaur hori esan didazu
baina zuk zuregan behar
duzun guztia daukazu
eta desio baduzu
inork maitatu zaitzan zu
lehenengo zeure burua
maitatzen ikasi zazu.

Aipamenak

Egilea: **Aimar Goenaga**

Garagardoak alaitzen ditu
mila egun ta mila gau
Hain zaila ote da aitortzea?
Nik asko maite zaitut Mahou.

Egilea: **Luix Unanue**

Maite zaitut nola esan
ez esazu burua jan
Arrimatuta begik itxita
Eztizko muxu bat eman.

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Joanitok Ametsi txapela jantzi eta astebetera elkartu dira biak berriro, Zumaian, Joanitoren etxean. Atetik sartu orduko, finalaren ondorenaz hasi dira berriketan. Elkarrizketaz elkarrizketa ibili da Amets, arnasa hartzeko ia betarik gabe. “Lehen hiru egunetan, batez ere. Pentsa: asteazkena arte ez nuen legezko jatordurik egiteko aukerarik izan”. Hori entzun eta segidan etorri da Joanitoren emazte Libe, turroia eskainiz. “Lasai, geroztik asetzeko aukera izan dut-eta”. Hala ere, turroi zati bat ahoratzeko tentazioari ezin muzin egin.

“TXAPELAK ARRARO SENTIARAZTEN NAU”

URREA DIREN DOKUMENTUAK

Ondo gordeta dauzka Joanito Dorransorok
"Bertsotan I" eta "Bertsotan II" liburuetako
eskuizkribuak, eta doinutegiko fitxa jatorrizkoak.
Interes handiz jarraitu ditu Amets Arzallusek
azalpenak, dokumentuak esku artean.

BALEIKE +





ARGAZKI PRESS

Joanitoren seme Enekok elkarrizketa grabatzeko kamera eta mikrofonoak prestatzen dituen bitartean, etxeko sofan eseri dira biak. Bertso doinuez jarraitu dute solasean. Manuel Lasaitek erabilitako bat ekarri du gogora Joanitok eta ahapetik kantatzen hasi da. Segituan harrapatu du Ametsek, eta bertsoaren amaiera bota: “*Giza legerik ez du izaten kontzientziarik ez duenak*, horrela bukatzen du eta badirudi frontoiak erori behar duela. Jendeak zer debozio... Doinua oso polita da [Elizan sartu zirabentian B]. 1968an kantatu zuen”. Joanitok jarraitu du: “Bai, Ehun mila pezetako sariketean. Oso polita da, baina ez da erabiltzen; etenik ez du. Egañak erabili zuen behin Zestoan”. “Oso doinu dantzaria da”, amaitu du Ametsek.

2013ko abenduaren 15a ez dute berehala ahaztuko. Amets Arzallu-sentzat mugarrria izango da bere bertsolari ibilbidean; Joanito Dorronso-rorentzat, berriz, bizitza osoan isilean egindako lana publikoan aitortu zitzaion eguna. “Egun ederra izan zen”, hasi da kontatzen Joanito. “Hemen-dik, autobusetik hasita –autobusean joan ziren emaztea eta biak, Zumaia-ko gainontzeko bertsozaleekin–. Jendeak bazekien txapela ematea egokitzen zitzaidala eta harrera berezia egin ziguten. Pena ez genuela autobusean kantuan egin... Gero, BECera iritsi eta sartzea pixka bat kostatu zitzaigun. Ilara luze samarra zegoen. Txanda iristean... Gonbidapenaren papera ordena-

Joanito: “Txapela jantzi, nori eta Ametsi. Pixka bat makurtu behar izan zuen...”

gailutik ondo aterata eraman nuen ustez, baina ez. Nonbait bi paper ziren eta nik kontrakoa eraman... Sarrerakoak bestea eskatzen zidan eta nik hura falta. Hala, Arantxa ikusi nuen, Amurizaren andrea, eta hark utzi zigun sartzen.

Joanito, finalaren aurreko egunetan urduri zeundela esan zenigun. Finalean izan al zenuen gozatzeko aukerarik?

Aurreko egunetan kalean gelditzen ninduen jendeak jarri ninduen urduri. Bertsoa kantatu behar ote nuen galdezka, gutxienez zerbait esan beharko nuela. Baina garbi nuen nire eginkizuna zela txapeldunari txapela jartzea, eta erabakia hartu nuenean lasaitu nintzen. Eguna oso ondo pasa genuen, palkoan, bertsozalariz inguratuta, Lazkano, Murua, Egaña eta abarrekin.

Baina bazkaltzeko orduan finalisten pare, nahikoa presaka ibili omen zinen...

Hori bai! Bazkaltzen hasi eta segituan etorri zitzaigun Esti Esteibar –zumaiarra, antolakuntzan aritu da lanean–, Euskal Telebistakoekin hitz egitera joan behar genuela. Entremesak jan eta joan ginen Iñaki Murua eta biok, BECeko beste muturreraino, jende artean. Haraino joan eta itxaroteko, oraindik ez zeudela prest. Beste ordu laurden edo. Estik esan zigun bazkaria eramango zigula, haragia ekarriko zigula.



ARRIATZ RUBIO APREA

ARRIKETAKO LAGUNA

Arriketara —kanposantuaren goialdean dago- igo dira Joanito eta biak, Manu Garate lagun joan berriari bisita egitera. Txapela eta Manuren argazkia eskuetan hartuta atera dute argazkia, Artepeko aterpean. Jon Maia eta Amets Arzallusen argazki bana daude horman. “Argazki hori bera egurrean landuta oparitu zidan” gogoratu du Ametsek. Saran daukaten etxearen izena ere Manuk landu zien, harrian. “Ama eta biak Goiko kalekoak ziren, Arritokietakoak, eta, gainera, elkarrekin egin zuten lan Egurkon... Zumaian topatzen ginenean beti ematen zizkidan eskumuinak amarentzat”. Manuren biloba Joar eta Saioarekin atera dute argazkia alde egin baino lehen.

—“Nola ekarriko dun honaino?”, —“Bai, gutxienez postrea ekarriko dizuet”. Han joan zen. Arrozesnea eta kafea ekarri zizkigun. Iñaki Murua elkarrizketatu zuten aurrea eta bitartean neuk bi arrozesne jan nituen. Gero kafea. Halaxe joan zen bazkaria, bi zatitan banatuta, Axularren *Gero* bezala.

Amets, zuri ez dizut eskatuko egunaren errepassoa, ha- maika bider esplikatu duzu-eta. Baina, nola gogoratzten duzu Joanito txapela janztera etorri zitzaizun une hura?

—Joanito, gogoratzten zer esan nizun? Zer konbertsazio modu xelebrea izaten den... Neu eskasa naiz une horietan, zer esan jakin ez... Eskerrik asko eta kontu tipikoak esan eta..., hantxe, txapela jantzi berritan, esaten diot: “Joanito, gero Zumaian, Samielen, afaldu behar dugu, etorriko al zara?”. Hantxe gonbidatu nuen [barreari eutsi ezinik ari da kontatzen]. Xelebrea da, gero... Baina pentsatu nuen orduan esan behar nizula, bestela gero agian ez nuela aukerarik izango...

—Bai, bai... Eta gero han izan ginen, Samielen. Nik txapela janztearen una oso lasai bizi izan nuen. Libe eta biok geunden zain, behean. Abisatu zidatenean, oholtzara igo eta han zegoen zain neska bat txapelarekin. Hura hartu eta emozioz beteta, txapela janztera, nori eta Ametsi. Pixka bat makurtu behar izan zuen...

—Horrelakoetan gurgura makurtzen da bat...

—Bestela, Ametsi txapela janztea errazagoa da. Maialenek daukan ile handiarekin...

—Alde horretatik, nire buruan hobeto enkajatzten du, bai.

—Baina ez pentsa ni edozein moduz joan nintzenik. Entrenatuta joan nintzen.

—Gu bezala, orduan.

—Kalean ez zitzaidan aholkurik falta. Miguel Zubimendi ibili zitzaidan azalpenak ematen. Joxe Agirrek Maialeni jarri zionean han ibili omen ziren txapela ukitu eta ukitu, ondo jarri nahian.

—Neuk ere badut txapela ukitzeko joera, baina ondo jantzita zegoela iruditu zitzaidan.

—Eta gero, agurreko bertsoan, gauza asko esan hituan, eh! Manuel Mari, kartzela, bertso eskolak, Iparraldea, gertukoak, arreba bi, aita, ama...

—Niri dena joan zitzaidan oso azkar, konturatzerako bukatu zen. Emozioen bila ibili behar izan nuen, amaierako agurra pentsatzen. Hanka

bat oraindik nire bertsoen barruan sartuta neukan, elurretan sartuta bezala, hotz-hotz, ezin odola berotu. Pena hori eduki nuen momentu hartan. Barruan bereziki ezer lehertu gabe pasa zitzaidan momentu hori. Bare. Maialenek agurrean egin zidan aipamenak urtu zidan pixka bat izoztuta neukan hanka. Harresia pitzatu zitzaidan hor. Eta estimatu nion. Nahi nuen

Amets: “Barruan bereziki ezer lehertu gabe pasa zitzaidan momentu hori”



Joanito Dorronsoro: “Eskolan erakusteko materiala sortzeko enkargua eman zidaten”



ARNAITZ RUBIO ARREA

Bertsolaritzak baserri girotik BECera egin duen jautzian zerikusi handia izan dute Joanito Dorronsorok eta bere belaunaldiko eragileek. Ikastoletan bertsolaritza irakasteko materiala sortu zuen Joanitok, *Bertsotan bat* eta *Bertsotan bi* liburuak; eta doinutegia biltzen ere orduan hasi zen. Lan eskeraren aitortza izan da 2013ko txapeldunari txapela janzteko aukera.

—Joanito: “Gure herriak bere baitan badu sen bat, ikusten duenean arriskuan dagoela bere izaera indarrak ateratzen ditu hari buelta emateko. Eta gauza askotan hori. Gure gaian, bertsolaritzan, gure belaunaldia aipatzen da. Eta Manuel Lekuonak zer egin zuen gure aurretik? Txirritak? Basarri batek? Eta zer bultzada izan zuen duela ehun urte? Azkue bat, Aita Donostia bat, konturatu ziren industrializazioarekin kantuak galtzera zihoazela. Biak ibili ziren herriz herri bertsoak eta doinuak jasotzen, kantutegietan, Aldundiak lagunduta.

Gure garaian, ikastola sortu zenean, eskola haietan zer erakutsi behar genuen galdetzen genion geure buruari. Ikusten genuen bertsolaritza arriskuan, baserri giroa beheraka, eta horrela sortu zen. Gure herria beti txiki, beti ezinean, baina poliki-poliki egokitu egiten da behar berrietara. Eta gu tartean egokitu ginen. Arrasate aldean hasi omen ziren bertsoa erakusten eskolan, eta niri esan zidaten ea zergatik ez nintzen hasten ikastolan euskal musika erakusten. Hala, etxeko pianoa hartu nuen eta hara eramane nuen. *Andre Madalen* eta *Aita jaingoak egin banindu* eta kantuak erakusten...

Mugimendu bat sortu zen eta gu tartean tokatu ginen. Patxi Goikoleak bultzatu zituen bilera haiek Ikastolen Elkartearen eskua hartzea eskatuta. Partaide izan nintzen Amuriza, Lazkano eta beste batzuekin batera. Niri eskolan erakusteko materiala sortzeko enkargua eman zidaten

eta bete-betean murgildu nintzen, gau eta egun. Lan asko eta pozik. Guk garbi geneukan Euskal Herri osoko bertsolaritzako bertsorik onenak bildu nahi genituela. Erraz esaten da Iturri bikaina izan ziren Aita Zavalaren Auspoa liburuak. Iparraldeko bertso idatziak ere bazeuden.

Lurralde guztiak eta pertsonaia nagusiak jaso nahi nituen, eta sei atal antolatu nituen: 1800 inguruan hasi, Pernando Amezkettarraren garaiarekin, Etxahunen garaia Zuberoan, Xenpelar, Pello Errota, Otaño Materiala bildu eta bildu, azkenean Txirritatik aurrerakoak bigarren liburu batean jaso behar izan nituen.

Umeek eskolan behar zuten materiala baino gehiago bildu nuen, baina lana egiten hasita ahal zen ondoen egin nahi nuen. Horrela sortu ziren *Bertsotan bat* eta *Bertsotan bi* liburuak.

Lehen liburuarekin ari nintzela, deskubritu nuen bazegoela beste egiteko bat, beste inork ez zeukana: doinutegia. Nik musikako aparteko ikasketarik ez neukan, baina bai ikusten nuen neure burua hori egiteko kapaz. Bertso asko zeuden inork idatzi gabeak, pentagramara ekarri gabe. Aurrena solfeoz idatzi, gero izendatu, eta poliki-poliki doinutegia biltzen joan naiz, gustura.

Eta gero, garai hartako beste puntu inportantea izan zen Bertsozale Elkartea sortzea. Hori oso inportantea izan da Jon Sarasuak esaten duen gaurko autoeraketarako”.

—Amets: “Joanitok-eta ikusi zutenean bertsolaritza arriskuan zegoela, joera izan zitekeen altxor hori bildu eta artxibo moduan jasotzea. Baina, tradizioaren iraupenaren kontzientziatz gain, guri erakutsi digute tradizio horrek zentzua izan behar duela gure gaur egungo bizitzan, jolas zahar horrek merezi duela ezagutzera ematea baldin eta bizigarri bazaigu gaur egun. Hori transmititzen asmatu zuten eta horren emaitza da bertso eskolen arrakasta, Elkartearen izen ona eta BEC leporaino betetzea”.

“Bertso asko zeuden inork idatzi gabeak, pentagramara ekarri gabe”



ARNAITZ RUBIO APREA



ARGAZKI PRESS

TXAPELAREN UNEA GOGOAN

Joanitik Ametsi txapela jantzi zioneko unea gogoratu dute biek, finala jokatu eta astebeterra. Ametsek barre egin du Joanitori bellarrira esan ziona gogoratzean.



ARGAZKI PRESS



BERTSOZALE ELKARTEA

Komentuko entrenamendu saioak

Duela lau urte, 2009ko txapelketari begira hasi ziren mojaxarren Komentuko elizan entrenamendu saioak egiten Jon Maia, Amets Arzallus, Unai Iturriaga eta Igor Elortza. Aurten ere han bildu dira txapelketa aurreko asteetan, saioetako tentsio puntua lortzeko gai jartzaile eta lauzpabost laguneko publikoarekin.

“Jon Maiaren kontua da, berak antolatzen du, simulazio modukoak egiteko. Bertso Eskolako Unai Gijarro aritzen da gaiak jartzen. Jokin anaia ere han izaten da, Josu Manzisidor... Manuel Mari Garate ere fijoia zen, bai duela lau urte, baita aurten ere. Haren seme Josu ere bai, eta ni neu”, azaldu du Joanitik; “Gu entzule modura joaten gara, publikoaren aurrean baleude bezala entrena dezaten”. “Batuetan 13.000 lagunengatik aurrean baino gehiago gozaten da Komentuan lau lagunentzat kantatzen”, dio Ametsek. “Guretzat asko balio du. Bakarririk kantatzen badugu, gelditu ere egiten gara batuetan ez bagoaz oso gustura ... Jendearekin tentsioa hartzen dugu, lekuko asko daude bertso baten erdian gelditzeko”.

Unai Gijaroren lana goraiatzan dute biek. Amets:

“Unaik gaiak oso ondo prestatuta ekartzen ditu, saiatzen da txapelketako gaikera erabiltzen. Gainera, formaltasun guztia betetzen du: bi aldiz irakurtzen du, serio. Lan fina egiten du. Ahal den egoerarik errealena irudikatzen saiatzen gara eta lortzen dugu. Eskertzekoa da haren lana”. Saioa amaitzean, kritikarako tarte zabaltzen dute. “Gure sentsazioak kontatzen ditugu eta entzuleen ikuspuntua eskertzen dugu. Atrebentzia puntua hartuz, iritziak entzuteko momentu ona izaten da. Oso emankorra da guretzat”.

Komentuak, gainera, esanahi berezia du Ametsentzat: “Niretzat sinbolikoki nahikoa leku berezia da. Umetan, komentuko barandila tarte horietan korrika ibiltzen nintzen udara guztian zehar... Amona eta amaren jaiotetxetik beheko atarian dago. Amonak bizitza osoan entzun zituen komentu hartako kanpaiak jotzen, kendu zituzten arte. Arima hori ere iristen zaizu hor zaudela”.

Nork esan behar zien Ametsi eta Joanitori, komentuko saio haietan bat kantuan eta beste entzule, handik aste batuetara lehenak bigarrenaren eskuetatik jasoko zuela txapela?



Arrain eta mariskoak

Bazarkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20



L I B R R U D E N D A

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

Egin zaitez **BALEIKEKO** bazkide



GERRAKO BOST DESAGERTU AURKITU DITUZTE

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

Egin zaitez **BALEIKEKO** bazkide



GERRAKO BOST DESAGERTU AURKITU DITUZTE



ALGORRITABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



ANA
ETXERKO ZAPATAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anaetxeokozapatak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA



D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 408

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com


Erakusketa. Hego kalea, 4-5
Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943 561 501
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI
Baltasar Etxabe 2/9
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net




Basadi albaitaritzza

Ribaitario
Itzi Garmendia

Basadi, 7. behea - tel. 943 143 310
www.maribelbasadi.com
www.basadiclinic.com

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 16-19:30 / Astebetez goizean eta larunbatean bita
Lanaldietarako: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzua

BASUSTA
ERRETEGIA



Patxita Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073



Braky's
Okindegia Katedegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumala (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Amets Arzallus: “Jonek jakingo du buelta ematen”

Istripu handizat definitu zuen Jon Maiak Oiartzungo saioan gertatu zitzaiona. Finaletik kanpo gelditu zen ezustean, noiz eta inoiz baino bertsolariago sentitzen denean. Amets Arzallusi ere sinesgaitza iruditu zitzaion Oiartzunen gertatutakoa.

“Astebururo plazan gabiltzanok oso ondo dakigu Jonek zenbat egiten duen bertsotan eta azken lau urteotan zenbat egin duen eta momentu honetantxe nola egiten duen bertsotan. Jon lehen serioagoa zen, bere ukitu poetiko horrekin, baina azken urteotan, hori galdu gabe, Jonek beste umore bide bat landu du, Jon bera festa hutsa da berarekin zaudenean, eta hori mikrofono aurrera atera egin du eta izugarri irabazi du azken urteotan. Eta plazaz aparte, txapelketarako prestakuntzan ere Jonek niri ez zidan batere inbidiarik, eta begira bakoitzak non bukatu dugun txapelketa. Niretzat gertaezina zena ikusi nuen Oiartzunen gertatzen.

Begira, Jonek lagundu dit gertatu zaidan guztia erlatibizatzen. Berea erlatibizateak, simetrikoki nirea erlatibizateak badakarrelakoa. Jon ikusi dut prestatzen, ikusi dut kantuan, Jonengandik asko ikasi dut azken urteotan, baita txapelketa honetarako prestatzen ari ginela ere; nik entzuten nizekion gauza batzuk erreferenteak zirenak niretzat, eta gero, begira. Bizitzak egunero lezioak ematen dizkizu. Edozeini gerta dakioketela eta horrek neuri ere erakusten dit tentsio hori eta ahalegin hori etengabe mantendu behar dela, eta, hala ere, gerta daitekeela.

Finalaren egunean, elkarrekin gosaldu genuen BECera joan aurretik, eta ondoren ere, Samielen, gurekin izan zen. Oso ondo ikusi nuen, umorean, eta poz handia eman zidan. Finalaren egunean horrela esan nion: “Desgrazia handia da, baina zuk daukazu aukera bat guk ez daukaguna beste perspektiba bat edukitzeko, eta zuk ikusiko dituzu gauza batzuk guk ikusi ezin ditugunak, eta ikasiko dituzu gauza batzuk bizitza guztian balioko dizutenak. Eta igual sufrimenduzko esperientzia bat pasako duzu, gero kristoren mamia bilatuko diozuna. Bada, pasa ezazu. Eta pasa ahalik eta barrunetik; ez ezikusiarrena egin situazio horren aurrean: ez pasa ondolik eta ez ibili iheska; sartu, sufritu, ahal baduzu umore bihurtu, baina, batez ere, ikasi, eta gero zuk inork baino hobeto aterako dizkiozu hitzak horri eta gu baino aberatsago izango zara horregatik”. Jonek badu hainbestearinoko artea eta talentua, eta sufrimendu guztiarekin buelta ematen inork badaki Jonek jakingo du umorez heltzen gaiari, nahiz eta barruan mina eman”.

zerbait berezia sentitu une hartan, eta Maialenen aipamena barru-barruraino iritsi zitzaidan. Eta Joanitok txapela jartzea berezia da niretzat, Zumaiaetik zetorren pertsona batek jantzea, Zumaiaik niretzat daukan esanahi guztiagatik. Familia guztia burura etortzen zitzaidan, batez ere falta direnak: osaba, amona, aitona... Manuel Mariren aipamenarekin ere bai. Manuel Mari zeruan ikusten banuen, osaba, amona eta aitona-rekin batera ikusten nuen, eta orduan haiengana zuzentzeko modu bat ere bazen niretzat. Hortik atera zen dena.

—*Aitarena den txapela eskaintzen diot amari*, hori oso doctorea izan zuan.

—Txapeldunaren agurra bertsorik politena izan daiteke, baina ez da ariketa erraza. Momentuak eskatzen duen emozioari eutsi eta erantsi nahi diozu; baina, aldi berean, zure barruarekin, zure historiarekin, momentu horretara eraman zaituztenekin fidelotasun minimo bat eduki nahi duzu... Bestetik, badakizu gehien zabalduko den bertsoa dela eta bolumen hori altxata dagoela aprobetxatu nahi duzu gauza batzuk esateko beste batzuetan nekezago direnak, komunikabide batzuetan pasatzen ez diren mezu batzuk... Eta ez nuen aipamen hutsez egin nahi. Bakoitzari espazio eta goxotasun minimo batekin kantatu nahi nion, bestela pilaketa bat egitea... Matematika hori guztia egitea hor barruan kosta zitzaidan. Gero ere buelta-ka ibili nintzen, “Hau horrela esan banu eta hura beste modu hartara...”, baina nola edo hala kabitu nituen.

—Nik uste baino gehiago aztertzen dituzue kontuak... Horrela ateratzen dira gero ateratzen diren bertsoak.

Joanito, zeuk atzeko lerroan jarraitu zenuen une hori, beste zazpi finalistekin bizkarretik helduta.

—Nik hurrengo egunean ikusi zintudan argazkitan, han atzean. Momentuan, agurra kantatu eta buelta eman nuen, han ikusi nituen denak helduta. Nik txapela kendu nuen eta taldera etorri nintzen, baina ez nintzen konturatu zu han zeundenik. Argazkiak ikusi nituenean ohartu nintzen, “Joanito ere han zegoen-eta!”.

—Nik garbi neukan: oholtzara irten, txapela jantzi txapeldunari eta ahalik eta azkarren irten handik, nire eginkizuna beteta; baina gustura ibili ninduan han atzean, gazte artean.

—Merezi du momentua bizitzea. Maialenekin hitz egin nuen, pena dela ez jakitea txaloak jasotzen. Neu ere halakoa naiz. Ezkutatu egin nahi. Baina merezi du momentu hori gozatea. Gu, minimoki antzezen sentitzen garen unetik, deseroso sentitzen gara eta ezkutatzeko gogoia etortzen zaigu, baina merezi du momentu horrek. Eta jendeak nahi du. Joanito, zeuk ere han zeure momentutxo bizitzea ere garrantzitsua da. Gero bakoitza den gisako da eta oso diskreto egin zenuen zure zeregina.

—Niretzat bi erreferentzia izan dituk Manuel eta Juan Mari Lekuona. Biei txapeldunari txapela jartzea egokitu zitzaientean halaxe egin zitean: txapela jarri eta kitto.

—Manuelek zeini jantzi zion?

—Sebastiani [Lizaso] uste diat, 1986an.

—Nik Juan Mari ikusi nuen Andoni Egañari jantzen.

—Bertsozale Elkarteak hasi zenean hartu zen bide hau, bertso munduan lan egindakoak saritzea, eta ez aginta-



ARNAITZ RUBIO APREZA

riak edo lehendakaria. Badakik orduan haserrea izan zutela lehendakariarekin? Dirua emango zutela, baina txapela lehendakariak emateko baldintzarekin. 1986an, Ardantza lehendakari zela.

—Erabaki ona hartu zuten ez onartzean, bestela aurrekaria jarriko zuten... Galdetu bestela Maialeni zer irudituko zitzaion txapela Patxi Lopezek jantzi behar izan balio... Alde ederrekoa Joxe Agirre! Gero bota zituen bertso haiek, gainera!

Oholtzako festa bukatu eta eskailerak jaisten hasi zinerako, Amets, ama zain zenuen...

—Azken eskaileran ama zegoen zain. Egia esan, segituan etorri zen; ez dakit hesiak nola pasa zituen... Egun osoan ez nituen ikusi, ez nekien non zeuden eserita. Besarkada bat eman zidan. Oso ondo ikusi nuen. Amak ondo espresatzen du bere sentimendua, besarkada eman, musu edo behar dena... Aitaren aldean askoz eskola handiagoa dauka. Oso fuerte zegoen momentu hura izateko. Ama etorri zen lehena. Zumaiaiko besoz inguratuta ibili nintzen: zureak [Joanitornek] aurrena, amarenak gero...

—Aita ez zuan, bada, urruti izango?

—Aitarekin gero, eta hark ere besarkada eman zidan. Uste dut bizitzan eman didan lehenengoa... Ez zen kapaz izan osoa emateko... Gu espresio gutxikoak gara, neu haren semea naiz-eta. Zer deseroso norbere besoetan, eta askatu egin behar. Baina aita ikusi nuen pixka bat aurpegia markatuta. Sekula baino gehiago.

Amets: "Komuneko azulejoaren gainean ikusi nuen nire burua txapelarekin lehen aldiz"

Txapela azkar samar kendu zenuen. Orduz geroztik amak zaindu al du?

—Amari eskaini nion eta amaren eskutan erori zen. Berak eduki du ordutik etxean, eta badakit ilusioa egiten diola. Orain ere, norbaitek eskatzen badit, argazkiak egiteko edo elkarrizketa baterako, amari aurretik txanda hartu

behar, medikutan bezala. Txapela hartu eta gero berriro entregatu behar. Egia esan, neuk baino hobeto zainduko du.

Ez duzu berriro jantzi...

—Ez, ez dut berriro jantzi. Gauean neuk eduki nuen. Etxera goizeko bostak aldera iritsi ginen. Ordura arte dena oso lasai eraman nuen. Etxera iritsitakoan, kotxetik gauzak atera nituen, txapela ere bai. Komunera sartu nintzen txapelarekin. Eta pentsatu nuen, "Pixka bat begiratu egin beharko diot...". Orduan konturatzen zara. Zuk irudikatzen duzu zeinen buruetatik datorren, orduan hartzen du bere benetako dimentsioa.

Etxeko komuneko ispiluan ikusi zenuen zeure burua lehen aldiz txapela jantzita?

—Komuneko azulejoaren gainean, lurrean. Propio begira egon nintzen, disfrutatzeko momentua eta eguna. Hasi nintzen zerrendatzen zeinen eskuetatik zetorren: Sebastian [Lizaso], [Jon] Lopategi, Andoni [Egaña], Maialen [Lujanbio] Niretzat hori izugarria da. Horrek egiten dit inpresio gehien.

—Eta atzerago jotzen baduk...

—Txirritarekin akordatzea bakarrik... Guretzat Txirrita da historian beste letra batzuekin tailatuta dagoen pertsona bat. Bere dimentsioa izugarria da. Bertso idatzietan eta marrazki bizidunetan ezagutu dugun pertsona bat da. Aitaren eta amonaren istorioetan. Ia-ia mitologiakoa. Basarri, Uztapide, Amuriza... Txapelak arraro sentiarazten nau, oso arraro.

—Karga izugarria ematen ziok txapelari.

—Bada, egoera xeble horretan ikusi nuen neure burua txapelarekin. Bakarrik zaudela, pixka bat norbere buruarekin harrotzeko lizentzia gehiago hartzen duzu, eta saiatzen nintzen, baina oso arraro sentitu nintzen.

Etxeratu aurretik, Artadiko elkartean egin zenuten afa-ri legea, senide eta lagun artean. Nortzuk bildu zineten?

—Arreba Maialen dary hango bazkide eta han bildu ginen, bai. Familiakoak. Zumaiaiko izeba Kontxi eta Ander eta Aitor lehengusuak. Nahikoa lan izan zuten guri zerbitzatzen Gero, amaren lehengusu Joxe Mari. Aitaren partetik, berriz, hamar anai-arreba dira eta erdiak han ziren. Lehengusu batzuk eta lagunak. Olatz [neskalaguna] eta haren neba ere bai. Hendaia-ko koadrilan asko ez gara eta bertsozaleak gutxiago. Pare bat han ziren. Futboleko lagun batzuk ere bai. Mikel Labaka eta Gaizka Garitano. Lagunak ditut eta oso bertsozaleak dira biak.

Komentuko Ahotsak

Unai Gijarro



Jon eta Amets bi meatzari zarete, duela urte bete izandako istripuaren ondoren berriro lanera itzultzeko garaia da. Jon prest dago, Ametsek ez du horretan pentsatu ere egin nahi. Jon hasita hiruna bertso sei puntuko motzean.

Horrelaxe ariketaz ariketa Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerdietako lan guztiak osatu arte. Udaletxe aurreko komentuan aritu gara serio demonio.

Ni gai-jartzaile lanetan aritu naiz Josu Mantzidorren laguntzarekin lanak baimentzen zionetan behintzat. Bertsotan Jon Maia, Amets Arzallus eta Igor Elortza ahal izan duenetan, Unai Iturriaga ere etortzekotan izan da behin baino gehiagotan, baina familia dela lana dela ez du etortzerik izan, aurreko txapelketan ere elkartzen ginen lau bertsolariok tarteko zirela.

Ikus entzule planean berriz Joanito Dorronsoro, Jokin anaia, Axier alabarekin, Josu Garate (finaleko sarrera gabe gelditu dena) ... eta Manuel Mari Garate lagun jatorra! Txapelketa garaian utzi gaituzu baina gurekin sentitu zaitugu eta horrek goxatu gaitu zerbait, besarkada bat zauden tokira!

Bertso oso onak entzuteko aukera izan dugu, pentsa horrelako bertsolariekin... Neure kezkatxoak ere eduki ditut gai-jartzaile lana txukun bete nahi horretan, ez baita berdina bertso afari baterako gaiak prestatzea edo txapelketako harria jarraituz gaiak jartzea eta pulamentuzko hainbeste gai sortzea, baina beno entrenamendu ondorengo pintxo eta tragoxka ordaindu dizkirate behintzat eta konforme xamar izango diren seinale.

Bertsoaldi bakoitzaren amaierako hausnar uneak ere oso interesgarriak izan dira, “gai honi horrela heldu bagenio... ta hau erantzun banu, pentsatu dut hau esatea ere baina... hobe hitz hori erabili ez banu...” Harrigarria da zenbat gauza eta ze abiaduratan pasatzen dituzten lepo gaineko erroatik. Gure modukook ideia txukun xamarren bat etorritz gero gustora!

Horregatik daude hauek han eta gu hemen! Amen!

Ta Jon... gure Jon... aitortuko dizuet oso oso bertso puntu onean zegoela gure marinela baina izarrak gaizki lerrokatu zitzaizkion nonbait komeni ez zen egunean eta orduan! Kitto! Txapelketatik kanpora! Pena galanta bai berak eta baita guk ere, animo Jon! Soseauko dek eta itsasua!

Final handia! Ikaragarria iruditu zitzaidan, bertso maila izugarria... eta Amets txapeldun! Joanitok jantzi zion txapela! Manuel Mariren aipamena azken agurrean! Zer gaude komentuan???? Baita zera ere! BECen !! puff!!

Ta gero diote gaur egunean elizak ez omen duela indarrik! Komentuak bai behintzat!

Finalean izan ziren biak. Jonek [Maia], Labakak eta hirurok harreman handia daukagu eta elkarrekin oporretara joan izan gara. Eñaut Zubikarai Realeko atezaina ere han zen; eta Jagoba Beobide Alaveseko jokalaria Jokin Uranga ere etorri zen. Eta aitarekin, “bertso familiakoak” deitzen ditugunak, saio guztietara joaten direnak. Bakarren bat ahazten ariko naiz, baina 30 bat juntatu ginen. Baina oso lasai egon ginen.

—Neuk sekulako kontrastea sentitu nian han. BECen emozioak gainezka eta Samielen berriz, denak natural-natural...

—Orain pentsatzen hasten naiz eta esaten diot neure buruari ez dela normala hain lasai egotea, gehiago ez bizitzea une horiek. Baina halaxe ateratzen zait. Kontzienteki saiatu nintzen traszendentzia pixka bat ematen, baina kosta egiten zitzaidan. Eta oraindik ere halaxe nator.

Joanito, Ametsek arraro ikusten du bere burua txapelarekin, lehen aipatu dituzuen izen handi horien segidan lekuz kanpo. Zuk nola ikusten duzu bera?

—Aspalditik ikusten genion Ametsi bazuela gaia, eta luzaro ibiliko da hor aurrean. Gaur egungo bertsozaleen artean iritzia galdetuta, dudarik ez dut jendeak oso gustuko duela. Ametsek bere hausnarketa eta filosofiaz gain, tradizioaren arrasto garbia du, eta nik horri garrantzia ematen diot. Bere aitarena, lehengotik datorrenaren arrastoa. Joni leitzen nion elkarriketa batean bere burua ikusten duela bertsolari tradizio gabea, behartuago, hauek jario berezkoagoa daukatela. Ametsek horrelako zerbait badu.

Eneko semea etxean duela aprobetxatu du aurreko egunean Joanitok ganbara pintatu eta txukuntzeko. “Nire bizitzaren zati bat bota nuen aurrekoan zakarretara. Latinezko liburuak, teologia gaien ingurukoak... Inork ez dituela behar, eta neuk ere ez honezker...”. Baina liburu zahar artean ondo gordeak ditu oraindik urrea diren dokumentuak. Mahai gainera ekarri eta erakusten hasi da. Ametsi begiak zabaldu zaizkio. “Hauek dituk Bertsotan liburuetako eskuizkribuak”, azaldu dio Joanitok. Orriak zabaldu ditu. Boligrafo kolore ezberdinez dago idatzita, txukun-txukun. “Hemen igartzen da seminarioko arrastoa”, egin du txantxa Ametsek. Gorriz bertso bat ageri da; biak hasi dira kantuan: “*Panderiyako honek / memoriya erne; Lexotik jartzen digu / zenbait umore...*”. “Maketazioa ere eskuz egina daukazu-eta! Gutxienez, diseinurako zure kriterioa eman zenuen...”, Ametsek, zirikatzaile. “Hau dena idazten ba al dakik zenbat denbora pasatzen nian? Bukaeran bertsoak zerrrendatzen bakarrik... Ordenan jartzea sekulako lana duk, eta gaizki jarriz gero, berriro idatzi behar!”, Joanitok. “Bai lerroan zuzen nibelean idatzi ere!”, besteak. Zapata kaxa bat zabaldu du jarraian. Doinutegiko fitxa originalak dauzka bertan, horiek ere eskuz idatzita. “Hauek kontroleko fitxak dituk”, hasi zaio Joanito azaltzen. “Hemen koplak saila, trikitiarena... Neurrika ere bai...”. Fitxa bat atera eta irakurri du: “*Aizak hi Anjel jakingo al dek*, Etxarte bertsolariak kantatua...”. Piano aurrean eseri da Joanito; Amets atzean zutik. Bata doinuak jotzen hasi da; besteak ahotsarekin lagundu dio. ■

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurigrunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



EKAIN

SAGARDO EKOLOGIKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045



ERROTA
OPIL-OKINDEGIA
SANTILXO AUZOAN, 32
20750 ZUMALA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errotat@errot-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskatu sarekontua
konpromisorik gabe.
DOAN



Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

Galdona



burdindegia

Mendaro mairuela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Garoa

kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181



Era guztietako instalazioak,
Etxebizitza, erreformak, pabilola,
argi lanak eta telekomunikazioak

Trenbide pasealekua, 5. 1 Pabilioia Tel. 943 14 34 02 / 24 Orduko zerbitzua 610262617



Bezere arreta zentroa
Erribera kalea n°5
Tel. 943 86 18 65



GOIKO TABERNA

Erribera, 9 tel. 943 861 391



ARGAZKI ESTUDIOA | ESTUDIO DE FOTOGRAFIA

www.goizargazkiak.com | goizargazkiak@gmail.com
Txomin Agirre kaia, 2 behea

Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

Urola ibaiaren itsasadarra berreskuratzeko Plan Nagusiaren tramitazioak aurrera doa.

Getariako eta Zestoako udalen oniritzia jaso ondoren, Zumaiako Udaleko azaroko Udalbatzak behin-behineko onarpena eman zion dokumentuari. Behin helegiteen epea amaitzen denean (urtarrilaren erdialdera),

Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren oniritziak jaso beharko dira behin betiko onarpena emateko. 2014ko erdialdera onartuko dela espero da.

UROLA IBAIAREN ITSASADARRA BERRESKURATU NAHIAN

TESTUA ETA ARGAZKIAK: JUAN LUIS ROMATET

Urolako itsasadarra, Santiagoko hondartzan hasi eta ibaiaren gora eginda Oikiaraino doan eremua (artadia barne, baina ez Narruondoko erreka), Natura 2000 sarearen parte da eta Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak orain urte batzuk. "Izendapen horrekin legedi aldetik koska bat igo zitzaion, KBE izendatzean ez da esaten zer egin behar den ingurune horretan; dio eremu hori babestu egin behar dela eta helburu batzuk lortzeko diru laguntzak eskatzeko aukerak ematen ditu", azaldu du Udaleko Ingurumeneko zinegotzi Aitor Leizak. Behin-behineko onartu den dokumentu honekin ingurunea babesteko beste pauso bat eman nahi izan du Udalak. "Hirigintzan erabiltzen den figura bat aukeratu dugu, Plan Nagusia. Horrekin babespen handiagoa lortzeko aurrerapauso bat eman nahi izan dugu".

2012. urteko ekainean iragarri zuen Udalak proposamena. Udazkenean parte hartzeko prozesua jarri zen abian eta mahai teknikoak ere eratu ziren garai hartan. Bidezkoak bezala ikusi ziren proposamenak dokumentuan txertatu eta gero, Getariako eta Zestoako udaletara bidali zen haien oni-



1



2



3



4



5



6



7



8



9



10



11



+1



Zestoa

Zumaia

12 PROPOSAMEN + BAT

1. SANTIAGO HONDARTZARAKO IRISGARRITASUNA HOBETZEA: *arrapala bat jarriko da gaur egun eskailerak dauden lekuan. Haren azpian kokatuko dira taberna eta komunak. Hondartza erdian dauden kantina eta haurren jolaslekua kendu egingo dira.*

2. DUNEN ARTEKO BIDEXKAK ZAINDU: *Santiagoko dunak zeharkatzen dituzten bidexka batzuk oinezkoentzat erabilgarriak izango dira; beste batzuek, ordea, kendu egingo dira. Ez dira baimenduko piknikak, barbakoak edo antzerakoak. Ingurua zaintzeko norbait kontratatzea aurreikusten da.*

3. PADURA ONDOTIK DOAN BIDEA ESTUTU: *Santiagooko atzealdetik doan bidea estutu egingo da eta oinezkoentzat eta bizikletan doazentzat bakarrik izango da.*

4. ATRAKALEKUAK ERRIOAN: *txalupa eta bapore tradizionalak lotzeko atrakalekuak jarriko dira ibai ertzetan. Orain arte, kirol portuan atrakatzera behartzen zituen legeak.*

5. BIDEXKAK ARTADIAN ZEHAR: *Landarte parean, artadian zehar dauden bidexkak berreskuratuko dira artadia barrutik ezagutzeko. Gutierrez familiak ibaian, artadiaren azpian, duen nasa txukundu egingo da. Artaditik hara eramaten zuen bidexka itxi egingo da eta bertara joateko aukera bakarra txalupa bidez izango da. Lan hauek negu honetan bertan egingo dira.*

6. BARATZEAK: *ur araztegiaren atzealdean, Basadizarren, dauden baratzeak hala izaten jarraituko dute. Baina etorkizunean instituzio batek inguru horretan padura berreskuratuzeko erabakia hartzen badu, atea irekiko zaizkio baratzak kentzeko.*

7. MAREARTEKO GUNEA: *Udala lursail baten jabe da Usurbiribillaga aldean, enbor lehorrak dauden inguruaren alboan. Lursail horretan lur mugimendua aurreikusten dira padura bihurtu eta marearteko gunea sortzeko.*

8. BEHATOKIAK: *hegaztiak ikusi eta inguruneaz gozatzeko hiru behatoki jarriko dira: bat Basadizarren, bigarrena Kanteragañan eta hirugarrena ibaiaren bestaldean, Garbigunetik abiatuta, errioko behera, Usurbiribillaga aldean.*

9. BEDUAKO ONTZIOLA: *Beduan zegoen ontziolaren aztarnak zaindu, berreskuratu edo museo antzerako bat egiteko atea zabaltzen dira.*

10. GOROSTIAGAKO SORO BERRIAK: *industrigune alboan, ibaiertzaren alduera zertxobait jaitea aurreikusten da, ibaiertza berreskuratuzeko.*

11. IBAIAN GORA: *Oikiara bidean, ibaiaren alboko maldak leunduko dira eta ibaiertzeko landaretza berreskuratuko da.*

12. AZTARNA ARKEOLOGIKOAK: *itsasadarraren eremuan dauden aztarna arkeologikoak katalogatu egingo dira, lurrian mugimendua egiten direnean kontuan har ditzaten.*

EREMUTIK KANPO. *Narruondo ibaia ez du Eusko Jaurlaritzak KBE izendatu eta, beraz, Urola Itsasadarraren Plan Nagusitik kanpo geratu da. Hala ere, Iriiondo jatetxearen atzealdean dagoen eremua padura bihurtzera behartu du Gasteizko Gobernuak Zumaiako Udala.*

ritzia jasotzeko. Kontuan hartu behar da babestu nahi den itsasadarreko bi gune, Santiagoko hondartzaren zati bat eta Bedua, hurrenez hurren, Getariakoa eta Zestoakoa direla eta bi udal horien baiezkua beharrezkoa zela Zumaia prozesua tramitatu zezan. Zestoak ez zuen oztoporik jarri; Getariak bai, ordea, baina bizpahiru hilabeteko kontraesanen ondoren, baiezkua eman zuen.

Behin helegiteak aurkezteko epea amaitzen denean, tramitazioak Gasteiz eta Madrilerako bidea hartuko du: Zumaia kaiaren eskumena Eusko Jaurlaritzarena da; kostarena, aldiz, Espainiako Gobernuarena. Udal ordezkariak Madrilen izan ziren orain pare bat hilabete, Ingurumen Ministerioan, Santiagorako zuten proiektua azaltzen. Harrera ona izan zutela azaldu du Leizak.

Denborarekin eta jasotako ekarpenekin, Planaren izaera zabaltzen joan dela informatu du zinegotziak. “Hasieran espero genuen ingurumenarekin lotutako plana bakarrik izango zela, eremu jakin batzuk berreskuratzeko. Plana, baina,

handitzen joan da eta beste arlo batzuk ere landu ditugu, hala nola, kultura edota arkeologia”.



Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak idatzitako txosten batean jasotzen denez, Urolakoa Euskal Herri mailan dagoen itsasadar garrantzitsuenetako bat da “bere landaretza eta faunagatik”. Ez hori bakarrik: ekosistema berreskuratzeko aukera handiak dituela ondozioztatzen du txostenak. Zumaia padura bezalako habitatak, Euskal Autonomia Erkidegoan urriak direla

azaltzen du dokumentu honek, eta Uroilako itsasadarrean “ondo irudikatuta” dagoela gaineratzen du. Santiagoko duna “era ia naturalean Gipuzkoan azalera handiena duena” dela azaltzen du txostenak eta Barbadun, Zarautz eta Gorlizekoekin batera, “Euskal Herrian dagoen bakarretakoa”. Horregatik, “multzoaren babespenari lehentasuna eman behar” zaiola azaltzen du. Behin Plan Nagusia onartzen denean, altxor ekologiko honen babespen maila handitzeaz gain, zaintzeko eta berreskuratzeko zenbait ekintza bideratuko dira. ■

**Zumaia Udalak bat egiten du
urtarrilaren 11ko ekimenarekin**

**TANTAZ TANTA
ITSASO A GARA**

GIZA ESKUBIDEAK. IRTENBIDEA. BAKEA. EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA

URTARRILAK 11 BILBON



Egin zaitez
BALEIKE
bazkide



Gure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumalaia
Tel.: 943 86 09 70

English School
Harvest

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiarharvest.com

San Jose, 11 bis

tel. 943 143 334

API
Ibaitain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 399

Txomin Agirre 4, behea
tel. 943 862 651
faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net



Alai auzategia, 2

Tel. 943 24 50 20



Erribera kalea 16.

Tel. 943 861 523



IRUITZ

Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIAR

Angela Sorra, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa 943 430 637

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotatuak...

Itzurun Zuhaitzidea, 2 behea
Tel. / Fax: 943 86 15 65



943 862 083

ORRAZTEGI
ZUMAI

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basodi auzategia, 10

tel. 943 861 853



**Pintxoak eta
otartekoak**

Txomin Agirre kala, 8



KABI Pacala Etxezarreta, 15
943 117 427

Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa

Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20

Tel./faxa: 943860320



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517



PAPER diseinu grafiko

Roberto Gutierrez

696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org



Kresala
Taberna

Julio beobide 3, tel. 943 019 869



kuttun
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiko plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatexea • taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



MENDI - ONDO c.b.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 537 901



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

636 887 812 (Zumaia)
809 834 438 (Itziar-Deba)
www.carroceriasnoia.com



Nikol
taberna

Amaiko plaza 943561516

MARGARI Aruta-denda



Tel. : 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

ETXEGINTZA

OLIDEN

CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257

OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutzilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaltz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Indutrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoikia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



Zaharrak berri antzezlanaren aurkezpena zela-eta, Iñaxio Tolosak omenaldi bezperan esan zidan aprobetxatu egingo zuela Jontxu Alzibar aktore handiari omenaldi xume bat egiteko, eta ea neuk ere zerbait prestatuko nukeen, Gerra ondorengo kontuez ezer gutxi zekiela-eta. Ezin nuela erantzun nion, garai hura nik baino hobeto ezagutzen dutenekin hitz egin ondoren zerbait prestatu beharko nuelako eta horrek denbora eskatzen zuela.

GERRA ONDORENGO ZUMAIAKO ANTZERKIA

TESTUA: ABELIN LINAZISORO
ARGAZKIAK: JUAN LUIS ROMATET ETA
ABELIN LINAZISOROREN ARTXIBOA

Kontuak horrela, garai hartan aktore bezala lan egiten zuten Luix Mari Aizpurua, joan berri zaigun Manuel Mari Garate eta Antonio Etxaberi (Nikolenekoa) dei egin nien geuk ere omenaldi horretan, berandu bada ere eta idatzi baten bidez, parte har genezan.

Garai hartako giroa

Frankistak 1937ko irailean Zumaian sartu zirenetik kaleetako giroa oso iluna bihurtu zen, agintean jarri ziren zumaiairrak falangistak baino okerragoak bihurtu baitziren: euskaraz hitz egiten zutenei isunak; zenbait emakumeri buruko ilea zerora moztu; hustuta geratu ziren etxeetatik balio handiko bitxiak, altzariak, pianoak, tapizak, argi armiarmak eta abar lapurtu; frontera joan zirenen etxeakoak (emazteak, seme-alabak eta zaharrak) herritik bidali eta horietako zen-

bait etxetan bizitzen jarri; galtzaile askoren soroak, baratzeak, zelaia, txabolak eta abar irabazleen aldekoen izenean jarri; fusilatze zerrendak egin, bai herrian geratu zirenen eta baita gero preso eroritakoen artean eta abar eta abar. Kaleetan, galtzaileek elkarrekin topo egitean, beldurrez galdetzen omen zuten: “Zer berri?”.

1944an edo 45ean giro beltz hori zerbait baretu zen, eskoletan izan ezik. Ordurako euskaraz kaleetan lasai hitz egiten genuen, elizetan euskaraz edo latinez egiten zen otoitz; tabernetan euskaraz kanta zitekeen, baina kontuz zer esan edo zer kantatu. Etxe barruetan, adibidez, Gerrako kontuak edo sistemaren aurkako kontuak oso baxu esaten ziren, aldameneko inork entzun ez gintzan, eta zer esanik ez Radio Paris, Radio Londres edo Radio España Independiente entzuteko orduan, belarriak ia irratia kontra jarrita denok.



LAUKOTEA

Iraganeko kontuez hizketan aritu ziren Abelin, Luix Mari, Manuel Mari eta Antonio.

Giro horretan, garrantzi handia izan zuen Francok Eliza Katoliko Espainolarekin sinatu zuen konkordatuak. Espainiar Estatuko hierarkia guztia (Muxika eta Pildain apezpiku euskaldunak izan ezik) diktadorearen alde jarri zelako. Zergatik izan zuen garrantzia konkordatu horrek? Askatasun mota guztiak kendu zituen Francok Eliza Katolikoari autonomia ematen ziolako, horrela elizgizonek antola zezaketen euren eginbearra, betiere apezpikuaren begiradapean, jakina. Eta hemen sartzen da apaizen garrantzia gazteria antolatzeke.

Mundu guztiak nahitaez katoliko izan behar zuenez, Zumaian mutilok lehenbiziko jaunartzea zazpi urterekin egin ondoren luistarretako taldean (Congregación de San Luis Gonzaga) sartzen ginen eta neskak “Hijas de María” taldean. Neskek euren kolegioa zuten antzerkiak eta abar antolatzeke. Mutilezko gazteria antolatzeke leku bat behar zen eta Elizak Gerra aurretik PNVren batzokia izandakoa beretzat hartu zuen, luistarren kongregazioko mutilak antolatzeke. Leku hori mujikatarren bizartegi aurreko eraikin handi batean zegoen. Batzokia nolakoa zen ez dakigu, baina lehenbiziko solairuan zegoen areto handi hark Erribera kaletik Moilarainoko hedadura zeukan; behean, Moila aldera, porlan zakuen biltegi handi bat zeukan, eta Erribera kale aldera “Auxilio So-

cial” izeneko areto bat, falangistena, behartsuei laguntzeko, esne hautsa eta horrelakoak emateko, baina ez zuten onartzen izen euskaldunak: Joseba José bihurtzen zuten, Garbiñe Purificación eta abar. Horregatik, familia abertzaleak ez ziren hara arimatu ere egiten eta bestelakoak ere nahiko lan. LUIX MARI: “Gu jateko amorratzen egoten gitxuan, baina etxean ‘ojo al Kristo!’ gure ama mentalidadez frankisten nahiko aldekoa huan, baina Zumaiako falangista haien aurrean pobre bezala geratzea... ezta pentsatu ere!”.

Esan beharra dago luistarren areto handi hura gu denontzako biltoki eta babeska izan zela. Taberna zeukan eta jokoan egiteko kartak, baita dametan eta xakean ibiltzeko piezak ere; hiru bolako billarra, futbolina, ping-pongian jarduteko mahaia, liburutegia, bulegoa eta antzerkiak egiteko antzoki handi bat, bere banbalinak, koloretako argi, dekoratu ezberdin, apuntadorearentzako kontxa eta makilatzeke gelarekin. Areto hura leku ederra zen guretzat.

Batzokia horrelako areto bihurtzea ez zen goizetik gauera kontua izango, nahiz eta antzokia lehendik Batzokia berak egindakoa izan. Beraz, leku hura ondo prestatu bitartean, antzerkiak Alondegiaren gaineko areto handi batean egiten ziren eta sarrera beheko kaletik Mari kalera zuzen-zuzen dauden

eskaileren erdi aldeko deskantsilo pareko atetik zeukan. LUIX MARI: “Antzerkiak 1945. urtean-edo Alondegixan hasi hituan ematen, eta leku horretan 1952an inauguratuko zen ‘Eskola Profesionala’ egiteko obrak bizpahiru urte lehenagotik hasiko zirenez, Erribera kaleko areto handian 1949-50ean hasiko hituan ematen. MANUEL MARI: “Alondegiko kontuekin ondo akordatzan nauk. Eleizatik bezperatatik irten eta han egoten gitxuan mutil koxkor denok eskaileretan jarrita atea noiz irekiko, eta euria ari baldin bazan, ezker-eskuin bi teiltatuetatik istila zeriela eta gu hantxe, erdi-erdian, zipriztin tartean”.

Jontxu Altzibar

Jontxu Altzibarrek beharbada bakarrizketa bat edo beste egin-go zuen, baina normalean *Axkate*ekin (Luix Erkizia) osatzen zuen bikotea eta Alondegi goiko antzokian nola ibiltzen zen ondo gogoratzen dute Manuel Marik, Luix Marik eta Antoniok. Nik neuk Jontxu eta Axkate Erribera kaleko antzokian ikusten ditut; Mari kalekora anaia zaharragoarekin batera oso haur joaten ginela gogoan dut. Baita antzerki obra bat ere: preso bat zutabe bati lotuta; ondoan bandera espainol handi bat ikusten zen, eta fusilatu egin behar zuten; gorrien komandanteak “¡Listos!, ¡Apunten!”, esan ondoren, presoak “¡Viva España!” deiadarra egin zuen “¡Fuego!”-ren aurretik. Bost edo sei “fusilez” (pistoiekin ateratako sua eta kea botaz) hil zuten gure frankista. Aktorea Joxe Ramon Zubia zen.

Jontxu eta Axkateekin jarraituz, bikote hori izugarri ona zen, bai Alondegi gainean, baita luistarren zentroan ere, ikusleak barrez lehertzen jartzen zituzten-eta. Batzuetan Joxe Ramon Trekuk ere laguntzen zien. ANTONIO: “Jontxuk eta Axkatek antzerki asko egiten ziaten, euskarazko ‘Tip y Coll’ hituan, hasten zirenean elkarri kristonak botatzen zieten. Jontxu biziagoa huan eta inprobisatu ere, pufa!, nahi aina. Gidoia baino gehiago asmatu egiten zitean, eta gu denok barrez txixa egiten ginien”. LUIX MARI: “Behin, akordatzan nauk, Arturo Toscanini orkestrako zuzendari famatuaren papera egin zian Jontxuk. Ekarri zitian bandako musikari batzuk, Fermin *Bixi*, Ixidro *Tana*... Den-dena asmatutakoa huan... Eta ikuslea... Jo!, denok barrez lurtean bueltaka! Kristona!”.

Garai hartan inprobisatu eta asmatu sarri egiten zen, batez ere erdarazko antzerkietan. Behin batean, *Timidito y Terremoto* antzezlan oso laburra zela-eta -lau bakarrik ginen lanean, Antonio Etxabe, Eugenio Arrizabalaga, Juanito

Odrizola (Beheko Estazixokoa) eta neu- denbora osatzeko beste zerbait prestatu behar zela erabaki zuten antolatzaileek. Bezperan deitu Fermin *Porte*-ren koadrilari eta iganderako dena prest. Gure antzezlan amaitu zenean, han agertu ziren: Indiako maharaja dotore bat (Pedro Mari Irureta) angarila gainean jarritako tronu batean eserita zortzi lagunen artean eramana eta pregoilaria (Eugenio Arrizabalaga). Maharaja eramaileak “Sirena mora” modako kanta kantatzen agertu ziren: “Sirena mora, mujer sin par, todos la llaman: novia del mar, pues el marino llora al marchar, sirena mora, novia del mar”; pregoilaria hasi zen maharaja boteretsuaren bertuteak goraiatzan, Pedro Mari maharajak: “Jamala, jamala, ardua”, eta honelakoak botatzen zituela, baina..., angarila eramailetako batek estropezu egin, lurrera erori, beste denak oreka galdu eta han joan ziren lurrera angarila, eramaileak, tronua... Pedro Mari atleta zen eta salto bat eginez zutik geratu zen. Uste dut jendearen barre algarek hamar minutu jarraian irauten zutelako, angarilak eta tronua ondo jarri ezinik, oreka galdu eta ia erortze jarraitu baitzuten eta bitartean Eugenio bere diskurtsoa botatzen! Ikusleek, noski, uste izan zuten dena halaxe prestatua zegoela.



“Jontxuk eta Axkatek antzerki asko egiten ziaten, euskarazko ‘Tip y Coll’ hituan, hasten zirenean elkarri kristonak botatzen zieten”

Inprobisatze kontu hori nahi baino sarriago egitera behartzen zuena Cañizal zen. Periodikoan Zumaiaiko kronika idazten zuena eta kronikari oso ona zen. Antzerkirako zaletasun handia zuen, baina nahiko arriskutsua, papera ahaztu egiten baitzitzaien eta horregatik gehienetan apuntadore edo oroitarazle bezala egoten zen zoruaren pareko kontxa barruan sartuta. LUIX MARI: “Jontxu lana egiten ari zen batean, Cañizal, nonbait, pixka bat txispatuta zegoan; Jontxuk begiratu dik behera eta Cañizal kokolo eginda lo seko! Burua oker-oker eginda zeukala. Eta orduan Jontxu jendeari begira diskurtsoa botatzen hasi huan: ‘¡Que no te aclaras! ¡Que no me estas diciendo nada! ¡Dale la vuelta a la página!’”.

Cañizal aktore bezala berriketan ari zela, bat-batean isildu egiten zen eta berak asmatutako erretolika botatzen zuen, berekin ari zena aho zabalik geratu eta horrek ere inprobisatu egin behar! ANTONIO: “Bai, gizona. Hantxe biak aurrez aurre, bertsolariak bezala inprobisatzen!”.

Antzezlanak maiz ematen ziren, nik uste profesionaltasun handia zegoela garai hartan. Jontxu eta Axkate mutil koxkorren idolo baldin baziren ere, Antonio ez zen atzean geratzen, horrekin ere txixa egiten genuen. LUIX MARI: “Antonio ere oso



ona huan, papera ikastetik aparte asmatu ere egiten zian, eta gu igual berekin lanean eta honek esaten zituenekin geu ere eszena tokian barreari eutsi ezinik egoten gitxuan”.

Profesionaltasun horren adierazle antzezlanaren prestatzen egiten zen denbora da. ANTONIO: “Gehienez bi astean prestatzen ginien, baina normalean hamar egunean, baita aste betean ere: hiru egun papera ikasteko, beste hiru entsaiatzeko eta jaixan egitera”.

Antzezlanak euskaraz eta erdaraz ematen ziren. Luix Marik eta Manuel Marik beti euskaraz. Antonio, Juanito Odrizolak, Pedro Marik, Iñaki Beobidek (gero Donostian “Jarrai” antzerki taldea martxan jarriko zuenak) eta abarrek euskaraz eta erdaraz, eta, Eugenio Arrizabalagak, Alfredo Fernándezek, Joakin Alberdik, Maritxu *Karrakolok* eta abarrek beti erdaraz. Jontxuk eta Axkatek ez bakarrik euskaraz eta espainolez, beraien asmatutako ingelesa eta frantsesa ere erabiltzen zuten. Artistak.

MANUEL MARI: “Nik beti euskaraz egiten nian. Ba huan antzerki obra bat, *Mendibetarren larrialdiak*, azkenean bertso batekin bukatzen zena: ‘Estuasun eta larria pranko pasatu ondorenean / afaritxo bat behar genduke guztiok umore onean / gaur jarriko dugu Lukaxenean / bonbarik gabe aidean!’. Antzerki horretan gertatu zena izan huan, ba, herri txiki bateko festak zirela eta etorri dittuk ezezagun batzuk maletekin eta

poltsekin, pelotariak, nonbait, herriko mutil koxkorak atzetik jarraitu eta ikusi dixkie bi pilota ilun eta botila bat “petroleo gal” izena zuen likidoarekin. Mutil koxkorak beldurtu dittuk eta hura bonba zelakoan hasi dittuk: ‘Gal, gal, gal... galduek gera!’, karraxika. Hortik zetorrek ‘bonbarik gabe aidean’ esaldia. Jendeak nahiko parre egin zian. Beste obra bat *Markesa eta ikazkina* huan. Neri eman zitean markesaren papera, eta ikazkina Iñaki Amas zena huan. Akordatzen nauk nola hasten zen obra. Eszenatokiko kortinak ireki eta hasten nittuan: ‘Arrainopola! Gau guztian ez det begirik itxi! Anonimo hauek buruko ile guztiak ere tente ipintzen dizkitate!’. Anonimo horiek, nonbait, ikazkinak eta bere lagunak markesari bialdutakoak hittuan, mehatxupean dirua-edo eskatzeko. Eta uste diat nei emandako papera oraindik hor nonbait gordeta daukatela. Erdarazko obra batekin ere akordatzen nauk: *Anacleto se divorcia*, aktoreak uste diat Alfredo Fernández eta Joakin Alberdi *Arranque* ziala. Txantxetako obra huan eta esaldi bat edo beste buruan zeuzkat. Batek: ‘¡No hay atajo sin trabajo y el negocio échalo a remojo!’ eta besteak: ‘Pocos buenos radicales. Eso decía un tal emperador, pero yo digo que ¡Ójala todos los hombres tuviérais una sola cabeza para cortárselo de un tajo!’”.

Oso nahastuta ez baldin banago, Alondegi gaineko antzokia ezkutu samarrean zegoelako-edo, boterean zeuden fran-

kista zumaiarrak ez zien jaramon handiegirik egiten nonbait, baina obra denak Zumaiako kale nagusian, batzoki ohiko antzokian ematen hasi eta denbora batera, frankista horietako batek salaketa udaletxean jarri eta espainolezko antzezlanak maizago ematera behartu zuten luistarren zuzendaritza. Handik aurrera hiru espainolez eta bat euskaraz ematen zirela uste dut.

LUIX MARI: “Ni euskarazko antzezlanekin ondo akordatzen nauk. Luistarretan dozena erdia edo zazpi antzezlan bakarrik zeudean Toribio Alzagarenak-eta, eta kurpilean antzetzten genituan. Aurrenengotik zazpigarrenera eta berriro hasi. Erderazko antzerkietan *La muralla*-kin akordatzen nauk. obra oso ona eta serioa. Kontxita *Karrakolo*, Joakin Alberdi eta abarrekin egiten zitean lana.

ANTONIO: “Bai, *La muralla* oso ona huan. Ni apuntadore ibili nitxuan eta obra guztia buruz ikasi nian. Oraindik zati askorekin akordatzen nauk: “¡Hay Jorge de mi vida! Hemos visto mucho mi pobre Germán y yo cuando íbamos adelante en la vida, pero lo que nunca hemos visto es que se cante la palidonia, que se ponga en la vía pública dándose golpes de pecho y devuelva un céntimo al que no es su dueño”. Joakin oso aktore ona huan, baina despistaua galanta, igual berandu azaltze huan antzerkiera eta gu denok zai. Herritik kanpora ere irten genian antzeztera. Zestuako Balneaxura joan gitxuan behin. Eta jendea jo eta ma geratu huan. Hura txalo zaparrada jaso genuena! Bestela, zuzendaritza lana luistarretako zuzendaritzako bateon batekin egiten zian, baita aktore beraiek ere. Behin batean Pedro Mari Irureta zuzendari zegoela, hasi gaittuk eta: ‘Alto! Alto! Gelditu! Gelditu!’, Pedro Marik jende danen aurrean! Eskuan zeuzkan paperak atzekoz aurrera zeudela eta dena konpondu arte... deskantso. Te-loia jetxita”.

Antzerkiak arratsaldeko bostetan ematen ziren; billarra, futbolina, ping-ponga, jokorako mahaiak eta abar baztertu, aretoa eserlekuz bete eta balekoa. Zinea orduan, bai “Amaya”-n eta bai “Maitena”-n, arratsaldeko 18:30ean eta gauko 21:30ean botatzen zuten, eta, beraz, mutil koxkorak beta genuen zinera ere joateko. Gu sei lehengusu ama eta izekoen kontura joaten ginen jaiero.

Jontxu eta Axkate gure idoloak zirela esana dago, eta gu mutil koxkorak adinean aurrera egin ahala oharitu ginen luistarretako zenbait aktore ere oso onak zirela; aktoreak, ordea, ez ziren beti gizonezkoak izaten. Oso aldean behin ematen zi-

ren maitasun istorioek emakume protagonista eta bere lagun-tzaileak eskatzen zuten-eta, kasu horietan, beraz, neskak ere lan egiten zuten. Gogoratzen naiz behin neska protagonistak itzalezko tristura zuela (uste dut Ameriketara joan zitzaion mutilaren andregai zela); kontua da neska zuhaitz baten orpoan eserita negarrez hasi zela (Mari Karmen Eizagirre zen, Zumaiako *Txakartegi* portuko praktikoaren alaba) eta gu mutil koxkorrok aurreneko ilaretan egoten ginenez, neskari masailatik behera malko anpuluak erortzen ikusi genizkion. “Aibala! Egitan ari dek negarrez!”, guk elkarri. Erabat txundituta geratu ginen.

Jontxu eta Axkaterengana berriro bueltatuz, esan beharra dugu inprobisatzeko gaitasuna izugarria zeukatela. Zumaian bazen gizon bat, Juanito Arroze, oso azkarra, argia eta pasadizo berezi asko kontatu eta protagonista izaten zena, Xanti *Zapateroneko* (Jontxuren aita) denda Goiko Plazan bizi zen Juanitoren nahiko hurre zegoen, eta Jontxuk oso ondo eza-



“Gehienez bi astean prestatzen ginien, baina normalean hamar egunean, baita aste batean ere”

gutuzten zuen Juanito. Eta... LUIX MARI: “Bi hauek antzokian *Arroz-padas* izeneko saio bat ere egiten zitean. Juanito Arrozeper gertatutakoak edo hark esandakoak. Saio hori oso ona izaten huan, kontatu ahala bururatzen zitzaizkienak botatzen zituztelako. Nork baina nork handiagoa bota. Izugarriak”. ANTONIO: “Baina antzokitik aparte tabernetan ere kristonak egiten zitiztean. Edozein aitzakia nahiko izaten zien elkarrekin kriston xouak egiteko. Jende guztia parrez malkotan”.

Norbaitek galde dezake antzerkirako aktoreak nola edo non aukeratzten ziren. ANTONIO: “Gu beti luistarretan ibiltzen gittuan, beti hantxe bueltaka, batean billarrean, bestean jokoan eta hurrena liburutegian, eta luistarretako zuzendaritzako batekin esaten zian: ‘Hik antzerkirako bali-xo dek, paper hau egin behar dek’, eta listo, han ez zegoen diskusiorik. Musika klasikoa ere aitzen genian, zuzendaritzako Manolo Aizpuruak (Andika Txikixenekoa) etxetik tokadiskoa eta diskoak ekarri, gutako batzuei deitu eta liburutegian egoten gittuan entzuten.

Antoniok aipatu duenez, esan beharra dugu Manolok luistarretako zuzendaritzakoa urte luzetan izan zela eta ikaragarriko lana egin zuela, beti denei laguntzen, gaztetxo kezkatuak bereganatu eta eskola sozial antzekoak ematen, orduan dena elizpean zenez JOCen (Juventud Obrera Católica) babespean, musika klasikoaren edertasuna zabaltzen (gure



La Prima Vera
pizzeria

Alta Mari, 17, behea
tel. 943 247 011

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



RUBIO
Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

SESMA
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalesma.com
josebasesma14@gmail.com

Talaxia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



TALAI-PE
jatetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392



Tapaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondok (hodilloo)
Salxitzak, oilaskoak...
Garagardok aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905



Txingurri
Loradenda

Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

UPELA PARABOTIKA
BELARDENDA

- ✓ Sendagai naturalak.
- ✓ Osteopatia eta masajeak.
- ✓ Naturista, dietetika eta elikadura.



Upepla plaza, 9
943 537 911
upeplabelardenda@hotmail.com

Egin zaitez
BALEIKE
bazkide



Zalla



- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urtia Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoskolo@euskalnet.net



BASADI 12
20750 ZUMAIA
Tel: 943861010 / Fax: 943016126



Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161



EuroTaller
ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro
Gerente

Santixo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumalamotor@telefonica.net

Zumaia optika



Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

▼ 1931

Gerra ondoren luistarren zentroa izango zen batzokiaren inaugurazioa. Bi balkoi handi zeuzkan, bat moila aldera eta bestea Erribera kalera aldera.



▲ 1942

Garai hartako 'Calle Puerto' (Erribera kalea) zentroko sarreran amaitzen zen. Eskuineko eraikina kofradia eta Justaneko tabernaren da. Ondoa ikaztegi bat zeukan. Ikaztegi honen eta zentro ondoko ikaztegiaren tartean moilatik Erribera kalera sartzeko kalea zegoen.


▼ 1954

Banco de Vizcaya zegoen eraikinaren aurrean luistarren zentroa zegoen eraikin luzea ikusi daiteke. Argazkiaren ezker aldean Maitena zine aretoa ere ikusi daiteke.




▲ 1955

Bikotearen atzean, eskuin aldean, zentroa igotzeko sarrera ikusi daiteke. Zentroaren ondoan, ikaztegiaren horma ikusten da. Sarreraren eskuin aldean, horman zintzilik, pelikulei kalifikazio morala ematen zien buzoia dago.



1966

Behean ikusten den teilatua luistarren zentroarena da (teilatuaren herena ikusten da). Zentroa aurreneko solairuan zegoen eta, bigarrenagoa zentroko tabernaria eta bere familiarena zen.



GIRO ONEAN

Inperupe elkarteko mahai baten bueltan, hainbat bizipen gogoratu zituzten garai hartako antzerki giroaz eta baita antzinako Zumaiari buruz.



koadrilako sei-zazpi ere han izaten ginen diskoak entzuten ia inork diskorik ez zeukan garaian), liburu interesgarriak edo onak gomendatzen eta abar.

Jontxu mutil kozkor garaitik hasi zen antzerkian lan egiten, Joxe Etxaberen babespean. Etxabek Batzokian antzerkiaz gain, kantuan ere irakasten zuen, baita dantza taldeak atera ere, eta Parrokiako koroaren zuzendaria ere bazen. Antzerkiak Batzokian 1931tik Gerra piztu zen arte (1936ko uztaila) iraun zuten. Garai hartan lan handiak egin ziren: euskaraz alfabetatu Beobide irakasle zela, antzerkigintza, kantuan koroak atera, dantzariak ere bai, baita txistulari taldea ere. Ez da harritzekoa, beraz, Jontxu gaztetxo sasoiaren aktore bezala ibilitakoa, Gerra galdu ondoren berriro batzokia izandakora itzultzea antzerkietan lan egitera.

LUIX MARI: "Guk antzerkia dirua ateratzeko egiten genian, OARGUIK (Organización Atlético Recreativa de Guipuzcoa) antolatutako lehiaketetako kopak eta abar erosteko eta antzerki asko egiten genian, gutxienez hamabostean behin".

OARGUIK txapelketa eta lehiaketez gain, mendirako irteerak ere antolatzen zituzten, baita kultur irteerak ere, (ofizialki "Excursiones culturales" deituak) eta kulturari lotuta betiere leku hari zegokion historia ere azaltzen zuten: Azkoitiko "kaballeritoak" ("Caballeritos de Azcoitia") famatuak nortzuk ziren eta zer egin zuten, erreken ertzetako errota ezagutu eta abar. Behin batean Joxe Miel Barandiaran ere ekarri zuten eta han joan ginen Itziarpean dagoen kobazulora, On Joxe Mielen azalpen jakintsuak entzuterara.

Euskara idatzia hain gutxi ikusten zen garai hartan, OARGUIK mendirako irteerak edo kultur irteerak iragartzeko arabela bezalako lauki zuzen formako panel beltz batean idatzi eta Erribera kalera zegoen balkoitik zintzilik uzten zuten. Igandeetako irteerak beti goizeko 07:30ean Zubitxikitik izaten ziren eta panelean jartzen zuten zein menditara edo zein lekutarako. Pasadizo batek esango digu euskara-erdara kontu honekin batzuek nolako kirtenak ziren. Hiru lagun ginen Erribera kaletik zehar gindoazanak eta igande hartako irteerako idazkuna irakurtzeko gelditu egin ginen. Irteera nondik, zein menditara eta abar euskara jatorrean zekarren. Baina ordua 07:30ean jartzen zuen. Eta gure lagun honek bota zuen: "Hori gaixki zeok, letrero dana euskeraz jartzen dik eta irteerako ordua erderaz. Hor 'siete y media' jartzen dik!". Bes-

te biok hasi gintzaizkion esaten zerbakiak espainolez bezala euskaraz ere irakurtzen zirela. Hark ezetz, han “siete y media” jartzen zuela. Orduan beste lagunak esan zion: “Orduan ruso bat etortzen dek, hori ikusi eta honek ere ‘siete y media’ irakurriko al du?”. Eta gure kirtinak: “Hik nahi dekena esantzak, baina hor ‘siete y media’ jartzen dik!”.

Antzerkirako iragarpenak ere balkoitik zintzilik jartzen ziren. ANTONIO: “Horretan artista Joxeba Esnal huan, Luis-tarretako zuzendaritzakoa zena. Han jakiten genian zer obra antzetzutu behar zuten eta abar. Eta letra?! Kategorikoa! Nola monastegietan eta liburu zaharretan idazten zuten letra?! Halakoxea. Eta koloretan, e! Hura gauza dotorea!”.

Garai hartan, Jontxu eta Axkatez gain, beste mota bateko artistak ere ekartzen zituzten bai luistarrek, baita “Amaya” zinekoek ere. LUIX MARI: “Luistarretara Korostola abizena zuen musika jolea ere ekartzen zitean, oso ona, biolontxeloa eta beste instrumentu bat jotzen zian”.

“Amaya” zinera, berriz, dene-tik ekartzen zituzten: “Doctor Romelino” izeneko hipnotizatzailea eta pentsamendu transmititzailea, Mexikoko haurren orfeoia (garai hartan oso famatua zen “Orfeón infantil mejicano”) eta abar. Ikuskizun horiekin bai luistarren aretoa eta baita “Amaya” zine aretoa ere jendez lepo betetzen zen. Bi zineak ere zapatueta eta jaietan lepo betetzen ziren. Ostegunetan gutxiago. Baina... luistarrek batean baino gehiagotan ekarri zuten “Radio San Sebastián”i esker famatua egin zen “Pello Kirten” ez zitzaigun bati ere gustatzen, baserritar arlotearen papera egiten baitzuen eta bere emanaldi osoan espainola oso gaizki erabiltzen zuten baserritarrena egiten zuen. Euskaldunok Gerra galdu genuela genekien nerabeontzat euskararen kontrako ikuskizuna zen. Geroxeago, horren kopia bezala, Bizkaian “Txomin de Regato” azaldu zen. Zoritzarrez urte luzetan iraun zuena.

Antzerki obran kanturik bazegoen ahotsari laguntzeko eszenatokiaren behean piano bat egoten zen. Behin batean, Valentin Manterolak kantatzen irakatsitako tipleak *Polvorilla* izeneko zartzueta antzeko bat antzetzutu genuen, pianoan Valentin bera zela. Eta protagonistaren papera taldeko kantari onenak egin zuen, Migel Anjel Etxeberria bera. Polvorilla hori herriko txaperoa zen eta beti bakarka kantatzen zuen. Proba saioa egiten ari ginen batean, Migel Anjelek:

“Miro por aquí, miro por allá, todo lo olfateo, nada se me vá, pero muchas veces suele acontecer, que no veo nada de lo que hay que ver”, kantatzen hasi zen. Guri laguntzen jende asko ibiltzen zen eta horietako bat Sueltzuneko Jaione zen, nahiko gizona bera. Eszena tokian bertan aulki batean eserita dagoela esan zion Migel Anjeli: “Miro por aquí, miro por allá” kantatzerakoan behatza begi azpian jarri eta ezkerretara eta eskubira mugitu burua eta gorputza”. Jaione bera halaxe egiten hasi zen... Hasi bakarrik. Albo batera egiterakoan eserlekuak krak! egin zuen eta han joan zen Jaione lurrera bueltaka! Nahiko barre egin genuen.



Garai hartan, Jontxu eta Axkatez gain, beste mota bateko artistak ere ekartzen zituzten bai luistarrek, baita ‘Amaya’ zinekoek ere

Amaitzeko, azpimarratu nahi nuke Jontxu kantatzen ere ona zela. Parrokiako koroan mutil koxkor sasoiari tiple bezala kantatzen zuten, Joxe Etxaberen batutapean, eta gizondu ondoren ere koroan jarraitu zuen, 80 urterekin ere han joaten zen hura txintxo asko kantatzen. Gabonetako korokoa ere bazen, eta *La voz del mar* kantatzeko egin zen koro handian ere parte hartu zuen. Kanta luze hau lau ahotsetan kantatzen zen eta Zumaiaik aparte beste herri batzuetara ere joan ginen kantatzen. Jontxun ahotsa bigarren tenorra deitzen dena zen.

Azkenik, eta aprobeztatu kan-tuaz ari garela, eta nahiz eta denok dakigun kontua izan, azpimarratu nahi nuke 40ko, 50eko, 60ko hamarkadetan Zumaian tabernetan asko kantatzen zela eta ez nolana, bi ahotsetan beti eta batzuetan hirutan ere bai, melodia, baxua eta kontraltua. Koadrila asko ginen Zumaian tabernaz taberna kopak edaten edo txikiteoan, jai bezperetan gauz eta jai egunean eguerdietan, kantatzen ibiltzen ginenok. Zenbat eta gehiago kantatu orduan eta gutxiago edaten genuen. Eta kantuari lotuta, pasadizo polit bat:

Tabernariak kantuekin pozik izaten ziren, baina bazen taberna bat, Hotel Zumaiaikoa, hain zuzen (Erribera kalean izkina egiten duen okindegia dagoen lekuan zegoen)

hormari lotuta letrero edo idazkun bat zeukana eta “Prohibido cantar” jartzen zuena. Han ibiltzen zen Hotel Zumaiaiko Manolita gora eta behera, beti kantoreei isiltzeko esaten. LUIX MARI: “Egun batean, ordea, norbaitek bi hitz haiei ‘mal’ hitza erantsi zion. ‘Prohibido cantar mal’. Harrezkero Manolitari ‘Gu ondo ai gea, e!’, esaten gitxuan”. ■



ZATOZTE BAKAILAO DENDA

KALITATEZKO PRODUKTUAK, PREZIO ESKURAGARRIETAN

BAKAILAO DENDA BAINO ASKOZ GEHIAGO DA ZATOZTE SALTOKI BERRIA. BAKILAOAZ GAIN, ITSASKIAK, ARDOAK, DELICATHESENAK, EGUNEROKO PRODUKTUAK ETA CATERING ZERBITZUA ERE MARTXAN JARRI DUTE, URRATEGI EGAÑA ETA JULIAN AZKUNE BIKOTEAK ZABALDU DUTEN DENDAN. SARTU, IKUSI ETA DASTATU!

IZEN SUJERENTEA

Bezeroentzat hurbileko izena izateaz gain, emozionalki ere berezia da jabeentzat. “Ez genekien zer izen jarri eta bi izenen artean bat aukeratu behar izan genuen. Azkenean, gure aitak eduki zuen tailerraren izen bera jartzea pentsatu genuen”, esan du Urrategik. “Gure amaren herriaren izena, Gaintza, edo Urrategiren aitaren tailerrarenarekin izan genuen zalantza. Baina gure ustez bezeroentzat politagoa eta erakargarriagoa gertzen da ZATOZTE”, esan du Julianek.

ISLANDIAKO BAKAILAOA

“Kalitatezko bakailaoa da Islandiakoa”. Orain arte Norvegiak izan du fama, baina Islandiakoa ere merkatuan zabaltzen ari da, “eta kalitate handiagokoa da”. Bakailaoa era askotara saltzen dute: gazia, geza, izotzua... “Neurri ezberdinetakoak ditugu, eta bakailaoaren kokotxak eta tripakiak ere ekarri ditugu, adibidez”.





GUTIZIAK ETA EGUNEROKO PRODUKTUAK

Bakailaoaz gain, hainbat produktu ezberdin daude. Batzuk eguneroko produktuak dira, etxe bateko egunerokoan behar direnak. Baina, horietaz gain, bereziagoak ere badaude. “Pixa bat denetarik jarri nahi izan dugu. Ardoak ditugu, itsaskiak, haragiak, txarkuteriako produktuak, esparragoak, piperrak...”. Horien prezioak denetarikoak dira. “Ardoen kasuan, adibidez, ia denak 15 eurotik beherakoak dira, eta ardo bereziak ditugu, onak”. Gainera, produktuen katalogoa dute, eta bezeroek nahi izanez gero, dendan momentu horretan ez dagoen zerbait ekartzeko aukera eskaintzen dute. “Enkarguz, denetarik ekar dezakegu”.

NEURRIKO PREZIOAK

“Ez genion delicathesen titulua jarri nahi dendari, bestela badirudielako prezioak garestiak izan behar dutela, eta ez du horrela izan behar”. Produktu onak, baina prezio onean. “Hori da guk zabaldu nahi dugun mezua. Izan ere, badaude kalitatezko produktuak, izugarritzko dirutza gastatu behar izan gabe erosi ahal direnak. Gure denda era guztietako pertsonentzat dago zabalik, guztientzat da”.

CATERING ZERBITZUA

Kanpoko catering enpresa batekin dute akordioa. “Beraiek, enkarguz, janaria prestatzen dute, menu bat egiten dute, eta norbaitek lagunarteko bazkari baterako janaria enkargatu nahi baldin badu, adibidez, guk beraiei eskatu eta ekartzen dute hona”. ZATOZTEKO jabeak bitartekariak baino ez dira. “Guk ez diogu gainkarga jartzen prezioari, menua edo janariaren prezioa enpresa horrek jartzen duena da. Guk honekin bezeroek gure denda ere ezagutzea nahi dugu”.

EGUNERO ZABALIK

“Eguneroko zerbitzua eman nahi dugu”, diote, eta horregatik egunero zabaltzen dute saltokia. Asteleheneretik ostiralera goizeko 09:30etatik 13:00etara, eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara dago zabalik. Larunbatetan, berriz, goizeko 10:00etatik 13:30era, eta arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Igandeetan, goizez irekitzen dute, eta ordutegia 10:00etatik 13:30era da.



2014an aprobetxatu eta berritu sukaldea edo bainugela KRISIALDIKO PREZIOETAN

Inoiz izan diren prezio onenetan.

- ✓ Gremio guztiak ditugu eta geuk koordinatzen ditugu.
- ✓ Konpromiso gabeko aurrekontua:
ESKATU BELDURRIK GABE.
- ✓ 40 urtetik gorako ibilbidea bezeroen nahia betetzen.



**ENDAÑETA ZUMAI
ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com



©ogoratu! *Endañeta: aurrena arreta, gero salmenta.*